

Gopama proiektua Ibaizabal Ikastolako bigarren mailako Gizarteratze Teknikari talde batek egindako lana da. Talde honetan, Maria Quintanilla, Mainer Mendez, Gontzal Uriguen, Pablo Ferraris eta Malen Sarasua gaude eta Enpresa ekimenean ikasgaiaren elkarrekin bat sortu dugu pausuz pausu. Elkarrekin hau Durangaldeko aniztasun funtzionala duten pertsonentzako aisialdi gune bat izateko aukera bezala sortu dugu, aisialdi hori kirolarekin lotu dugu, izan ere, gure inguruan horren beharra ikusi dugulako.

Durangaldeko aniztasun funtzionala duten pertsonen premiak asetzeko helburuarekin sortu da proiektu hau eta gure gizarteratze ikasketak aprobetxatuz esku-hartze bat sortu dugu, beraien zaletasunak, gaitasunak eta trebetasunak garatzeko. Goi mailako zikloan zehar ikusi dugu ariketa fisikoak pertsonen zahartzaro prozesuan eragin positiboa duela, hauen psikomotrizitatea lantzen delako eta burmuinarentzako hainbat onura dituelako. Aniztasun funtzionala duten pertsonen zahartzaroa goiztiarra dela ikusi dugu eta kirolaren bidez prozesu honetan lagundu dezakegu, beraz, pertsona hauen bizi kalitatea hobetzeko asmoz eta autonomia sustatzeko helburuarekin sortu dugu elkarrekin.